



Eunateko eliza, Nafarroan. MIKEL ARRIZABALACA

Monje gerlarien **aztarnak gertu**

Tenplarioak Euskal Herrian izan zirela erakusten du ondare arkitektonikoak; batez ere, Araban eta Nafarroan izan zirela frogatzen dute agiriak.

ANAKOZ AMENABAR

Gasteiz

Ondare sakratuak babes-teko helburuarekin, 1118. urtean bederatzi zaldunek leku hartu zuten Jerusalem. Lur Santua bisitatzera zihoazen erromesei bidea zaintzen zieten. Berehala, aita santuaren babesari esker, aberastasuna eta boterea lortuta, herrialde askotara hedatu ziren. Garaiko hainbat dokumentuk erakusten duten moduan, Euskal Herrian ere izan zen monje gerlarien ordena. Zazpi menderen ostean, tenplarioek oraindik ere zere-

■ TENPLARIOEN AZTARNEN ONDAREAK



sana ematen dute gurean.

Zineari eta literaturako eleberr batzuei esker, hein handi batean, tenplarioak inoiz baino gertuago ditugu egun. Baina gure artean

Done Jakue bidea egiten zuten erromesak babestea zuten betebeharrak nagusi tenplarioek Euskal Herrian

egon al zen tenplariorik? Eta egon baziren, zein eginkizun zuten? Nafarroako tenplarioen elkarteak eta hainbat lagunek euren kasa egindako ikerketen arabera, badi-

ra ondare tenplarioen arrastoak, baina ikerlan handia behar da oraindik.

Done jakue bidea egiten zuten erromesei babes ematea zuten betebeharrak nagusi Euskal Herrian, mendiko bidelapurrei edo animaliei aurre eginez. Denborarekin tenplarioen egoitza asko desagertu dira, baina Araban Argandoña eta Tuesta, Gipuzkoan Segura eta Nafarroan Eunate esaterako, arrasto batzuk aurki ditzakegu egun.

Zortzi puntako gurutzak edota egitura oktagonaleko eraikuntzak izan daitezke horren adierazgarri, Fernando Rey gasteiztarrek azaldu duen moduan. Hamaika liburutan lortutako informazioa bildu du Reyk, eta poliki-poliki *euskalnet.net/templeuskadi* web orria ere osatuz doa gertuko ondareen datuok.

Reyk nabarmendu moduan, tenplarioak egon ziren dokumentu bakarrak Araban daude, Euskal Herriko beste hainbat gunetan izan ziren aztarnak badauden